



Txotx egiten, Astigarragako Petrategi sagardotegian. JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

AZKEN UZTAKO SAGARDOA, PREST

2016ko uztako sagardoa jadanik prest dago sagardotegietan, txotx garai berrian nahiz botilatuta dastatu ahal izateko.

Euskal Herrian, tokiaren arabera, uztaz desberdina izan da, toki batzuetan sagar ugari izan bada ere, beste batzuetan gutxi jaso baita. Uda lehorra izan da oro har, eta leku batzuetako euri faltak uztaz txikia izatea ekarri du. Sagar asko jaso den tokietan, berriz, kalitate oso onekoa izan da, izaera handiko sagardoa eman baitute gehienetan.

Bertako sagarrari dagokionez, orokorrean oso sanaia izan da sagarra, kopuruz iaz baino gutxiago jaso bada ere. Aurtan, sagarrari kosta egin zaio hel-tzen orokorrean, eta sagar biltzea az-

ken urteetan baino beranduago egin da toki gehienetan.

Izaera handiko sagardoa

Aurtengo sagardoaren ezaugarri orokorrak zehaztea ez da erraza, sagarra jaso den tokiaren eta erabili den sagar motaren arabera ezaugarriak izango baititu sagardoak. Baina, baldintza orokorrak kontuan hartuta, izaera handiko sagardoak dira oro har, gorputz handikoak eta egitura sendokoak, oso usaintsuak, txinparta finekoak eta baita tanino ugari dutenak ere. Ibilbide luzeko sagardoak izango dira.

TXOTX GARAIA

Jende ugari dago txotx garaia iristeko irikan, sagardotegietara otordua egitera joatea aspaldi-ko ohitura baita Euskal Herrian, sagardo berria eta jaki ederrak dastatzeko. Euskal Herrian, sagardotegiek nahiz hainbat elkar-tek eta erakundek antolatutako zenbait txotx irekiera ekitaldi izango dira aurtan ere:

Urtarrilaren 11: Txotx irekiera Astigarragan, Zapiain sagardotegian, Sagardoaren Lurraldeak antolatuta.

Urtarrilaren 12a: Arabako txotx garaia-aren hasiera, Zuatzu-Kuartango Kuartango sagardotegian, Arabako Sagarzale eta Sagardogileen Elkarteak antolatuta.

Urtarrilaren 13a: Nafarroako txotx garaia-aren hasiera, Aldazko Martitxonea sagardotegian, Nafarroako Sagardogileen Elkarteak antolatuta.

Urtarrilaren 14a: Txotx garaia-aren hasiera Hernanin, herriko plazan, Hemaniko Txotx Komisioak antolatuta.

Urtarrilaren 18a: Bizkaiko txotx garaia-aren hasiera Zornotzako Uxarte sagardotegian, Bizkaiko Sagardogileen Elkarteak antolatuta.

Urtarrilaren 28a: Goierriko sagardotegien txotx garaia-aren hasiera, Legorretako Aulia sagardotegian. Goiturrelkariek antolatuta.

Otsailaren 4a: Azkaineko Txopinondo sagardotegian Txotx Berri edo sagarno berriaren eguna.



LIZEAGA
Sagardotegia

ASTIGARRAGA • 943 46 82 90



Lizeaga Sagardoa,
hori gozamina!

edan
eta
eman
edatera